

GAZTETALK

BILBAO

EUROPA

**#BilbaoGazteTalk**

Gazteria, Enplegu eta Ekintzailtza Mintegia  
Seminario de Juventud, Empleo y Emprendizaje




**Bilbao**

UDALA  
AYUNTAMIENTO

EUROPA

Manufacturas

Sistema Europeo de Cualificación Mutua  
Seminario de Juventud, Empleo y Emprendedur



MINTEGIAREN AURKEZPENA

---

¿ZER DA GAZTETALK  
BILBAO EUROPA?

# ZER DA GAZTETALK BILBAO EUROPA?

GAZTETALK BILBAO EUROPA Europar Batasuneko Erasmus+Acción3 programak eta Bilboko Udalak elkarrekin finantzaturako proiektua da, eta Europako Batzordearen eta Europa 2020 Estrategiaren barruan Elkarrizketa Egituraturua sustatzea du helburu, udalaren gazteria-politiken ekintza zehatzak eta etorkizuneko erronkak Europako testuingurura eraman ahal izateko.

Horiek horrela, Bilboko Udaleko Gazteria eta Kirol Sailak, Bilbao Ekintzarekin batera, GAZTETALK BILBAO EUROPA Mintegia antolatu du martxoaren 2an eta 3an, Bilborocken.

# HELBURUAK

## HELBURU OROKORRA

Mintegi honen helburu nagusia gazteek eta gazteria-politiken arduradunek partekatuko duten gogoetarako gunea sortzea da, gazteen enplegua eta ekintzailtza politikez jardun dezaten.

## HELBURU ESPEZIFIKOAK

Hauexek dira helburu espezifikoak: alor horretan sortzen diren hainbat errealitate eta kezka identifikatzea, eta gazteriaren, enpleguaren eta ekintzailtzaren alorrean etorkizunera begirako erronkak eta jarduera-ildoak elkarrekin eraikitzea.

# NOLA EGITURATU DA MINTEGIA?

## SAIO IREKIA

Mintegia zein testuingurutan kokatzen den zehaztera eta ondorengo lanerako oinarriak ezartzera bideratua.

## LAN-TALDEAK

Gazteriaren, enpleguaren eta ekintzailetzaren alorrean dauden errealitate eta kezka hautematera zuzenduak, eta etorkizunera begira erronkak eta jarduera-ildoak proposatuko dituztenak.

## ITXIERA-SAIOA

Bilboko Udaleko Ekonomi Garapen, Merkataritza eta Enplegu Sailari eta Gazteria eta Kirol Sailari erronkak eta jarduera-ildoak aurkezteko saioa.

# MINTEGIAREN EGITARAUA

## IREKIERA-SAIOA

Juan Mari Aburto, Bilboko alkatea.

Oihane Agirregotia, Bilboko Udaleko Gazteria eta Kiroletako zinegotzia.

## SAIO IREKIA

Joseba Iriondo kazetariak aurkeztu eta moderatua.

### Esparrua kokatzeko hitzaldia

*Euskadiko gazteen lan-merkatua eta etorkizuneko erronkak.*

Sara de la Rica, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia katedraduna.

### Mahai-ingurua

*Zein eragin izaten ari dira enplegu-politikak gazteen kolektiboan?*

*Zein erronka eraiki daitezke etorkizunerako?*

- Nora Sarasola, Bilbao Ekintzako zuzendari nagusia.
- Luis Saratxaga, Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako sailburuordearen aholkularia.
- Gotzone Sagardui, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuko Lan Aktibazioko zuzendaria.
- Javier Garcia, BEAZeko Ekintzailatza zuzendaria.
- Jesús Riaño, Deustuko Unibertsitateko Deusto Alumni-ko zuzendaria.
- Mikel Mesonero de Miguel, Mondragon Unibertsitateko koordinatzaile akademikoa eta dekanordea.
- Itsaso Andueza, EGK Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko lehendakaria.
- Iñaki Garcinuño, CEBEKeke lehendakaria.

## LAN-TALDEAK

### Lehen Saioa (martxoaren 2a)

**Networking dinamika eta aurkezpena:** Nor naiz? Zein da nire laneko eskarmentua?

#### I Lan-taldeak:

- **Errealitateak eta kezka identifikatzea:** Zer-nolako egoera bizi duzu enpleguaren eta ekintzailatzaren inguruan? Zein kezka dituzu gai horien gainean? Zeren falta sumatzen duzu? Zerk kezkatzen zaitu?
- **Erronkak:** Zein erronka ezkutatzen dira errealitate eta kezka horien atzean?

### Bigarren Saioa (martxoaren 3a)

#### II Lan-taldeak:

- **Hautemandako erronkei begira, gogoeta egin eta jardueraildoak proposatzea.**
- **Gainerako taldeekin proposamenak partekatzea eta haien ekarpen eta iruzkinak jasotzea.**


## ITXIERA-SAIOA

Ekonomi Garapen, Merkataritza eta Enplegu saileko zinegotzi Xabier Ochandianori eta Gazteria eta Kiroletako zinegotzi Oihane Agirregoitiari emaitza nagusiak aurkeztea, talde bakoitzeko eledunen eskutik.

## MINTEGIAREN AMAIERA

Ekonomi Garapen, Merkataritza eta Enplegu Zinegotzia eta Gazteria eta Kiroletako zinegotzia.

# PARTE-HARTZE DATUAK





DISEINUA ETA METODOLOGIA

---

**GAZTETALK-EN**

**ARIMA: LAN-TALDEAK**



# METODOLOGIA:


# PARTE-HARTZEA ETA ANIZTASUNA DIRA ARDATZAK

## METODOLOGIA

Hauxe da mintegiaren abiapuntua: ahalik eta argazki anitz eta inklusiboena jasotzea. Izan ere, gure **metodologia parte-hartzailea** da, eta, hala, mintegira bertaratzen diren pertsona guztien parte-hartzea orekatua izan dadin nahi dugu; aldi berean, guztien bizipenak eta ezagutzak harremanetan jarriko ditugu. Metodologia horrek, parte-hartze aktiboa bultzatzeaz gain, tarteko diren alderdi guztiak ahalduz ditu.

## DINAMIZAZIOA

Saioak dinamizatzeko, metodologia parte-hartzaileetan espezializatutako bi profesionalen laguntza izango dugu. Gainera, elkarrizketa ahalbidetu eta mahaietako dinamizazioa sustatzeko, talde bakoitzean ikertzaile gazte bat egongo da, gazteria, enplegu eta ekintzailetzan aditua.



# IRITZI GUZTIAK DIRA BALIAGARRI: LAN-TALDEAK ETA PARTE-HARTZE IREKIA

## TALDEAK

Lan-taldean bitartez, elkarrizketarako gune partekatu batean sartu nahi dira gazteria, enplegu eta ekintzailtzaren alorrean sortzen diren era guztietako bizipenak, beharrak eta ezagutzak eta, hala, tarteko diren alde guztiak aintzat hartuko dituen **diagnostiko, proposamen eta berregituratze** prozesu bat jarri nahi da martxan.

Horregatik, lan-taldeak eratzeko orduan, ahalegin berezia egin dugu **era guztietako profilak** biltzeko; izan ere, bizipen, esperientzia eta ezagutza anitzak jaso, entzun eta barne hartu nahi ditugu.

Horrez gain, errealitate hori zuzenean zein zeharka bizi duten pertsonekin lan egin nahi genuke. Horrenbestez, eta betiere aniztasunaren oinarritik abiatuta, modu batean zein bestean errealitate horretan tarteko diren **gazte eta eragileez** osatuta daude lan-taldeak.

## PARTE-HARTZE IREKIA ETA KOMUNIKAZIORAKO ESTRATEGIA

Gure abiapuntuak, esan bezala, parte-hartzea eta aniztasuna dira. Horregatik, ahalegin berezia egin dugu ahalik eta errealitate gehienetara iristeko. Horretarako, mintegian sortzen den eztabaida aldi berean eramaten da **sare sozialetara**, eta mintegitik kanpo dauden gazte eta eragileei gonbita egiten zaie **parte hartzera eta ekarpenak** egitera.

Mintegian gertatzen ari dena jaso eta komunikatzeko, eta aldi berean kanpotik ere gogoeta-prozesu osoan zehar parte hartu ahal izan dadin, sare sozialetan eta *storytellingean* espezializatutako bi lagunek saioen **kontakizun digitala** egin dute denbora errealean, eta, hala, lotura bat sortu dute lan presentzialaren eta sareetako gogoeta birtualaren artean:  
<https://storify.com/Bilborockbilbao/bilbaogaztetalk/>

# NORK OSATZEN DITU TALDEAK?

## GAZTEAK

- Ikasleak:
  - ▶ UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea
  - ▶ Heziketa Zikloak
- Langabezian dauden gazteak
- Gazte ekintzaileak
- Besteren kontura lan egiten duten gazteak
- Bekadunak

## ERAGILEAK

- Gizarte-kalteberatasun eta -bazterketaren alorrean lan egiten duten hirugarren sektoreko entitateak: Kooperera, REAS, Lantegi Batuak.
- Lanbide Heziketan espezializatutako entitateak: Ikaslan.
- Goi Mailako Hezkuntzako erakundeak: Deustuko Unibertsitatea (Berrikuntza eta Ekintzailtza).
- Gazteen enpleguan espezializatutako entitateak: Novia Salcedo Fundazioa.
- Enpleguaren eta ekintzailtzaaren alorrean lan egiten duten tokiko eta eskualdeko erakunde publikoak: BEAZ, DEMA, Bilbao Ekintza, Lanbide (EURES).
- Enpleguaren eta ekintzailtzaaren alorrean lan egiten duten tokiko eta eskualdeko erakunde publikoak: BEAZ, DEMA, Bilbao Ekintza, Lanbide (EURES).



ERREALITATEAK, KEZKAK, ERRONKAK  
ETA JARDUERA-ILDOAK

---

ZEIN DIRA EMAITZA  
NAGUSIAK?



ERREALITATEAK

ZEIN EGOERA BIZI  
DUZU ENPLEGUARI  
ETA  
EKINTZAILETZARI  
DAGOKIONEZ?

# ERREALITATEAK

Lehen fase honetan, lanerako sei mahai eratu dira, enpleguari eta gazteen ekintzaitzari dagokionez, parte-hartzaileek zer-nolako egoerak bizi dituzten ezagutzeko. Banakako esperientziak taldearekin partekatu dira, adostasunak eta iritzi-desberdintasunak bilatzeko, eta, hala, egoeraren lehen diagnostikoa egin ahal izateko. Lan horretatik, era guztietako errealitateak jaso ditugu, eta lau ardatz nagusiren arabera sailkatu:

Laneko ezegonkortasuna eta behin-behinekotasuna.

Bizitzaren ezegonkortasuna.

Desorientazio-sentipena.

Genero-desberdintasuna eta gizarte-kalteberatasuna.

# LANEKO EZEKONKORTASUNA ETA BEHIN-BEHINEKORTASUNA

Aipatu dituzten errealitate gehienak gazteek lan-ibilbidea garatzeko dituzten baldintzekin lotuta daude. Izan ere, honelako bizipenak azaldu dituzte:

- Langabezia: iraupen luzekoa ez bada ere, aitortu dute lan-merkatutik sartu eta irten egiten direla maiz, eta langabeziaren mehatxua etengabea dela.
- Kontratazio-motak: azaldu diren lan-harremanen zati handi bat kalitate baxuko kontratazio-modalitateen barruan daude (praktikak, bekak, autonomo faltsuak, ezkutuko ekonomia...); laneko eskubide gutxi dituzte, ordainsari baxuak, eta hasierako trebakuntzarekin lotura txikia duten eginkizunak bete behar dituzte. Gainera, kontratuak oso iraupen laburrekoak dira (6 hilabetetik urtebetera), eta lanaldiak, askotan, partzialak; bereziki aipatzekoak dira, beraz, gazteen enpleguaren behin-behinekotasuna eta partzialtasuna.
- Behin-behinekotasuna: aurreko bi errealitateen ondorioa, eta soldata baxu eta etenak hedatzearen ondorioa. Mahaietan, oro har, bat datoz gai horretan.
- Egiturazko kontuak: besteak beste, lanaren polarizazioa, azken hamarkadetan lanak izan dituen eraldaketak, laneko harremanen desarautzea edo kualifikatu gabeko lanak.

# BIZITZAREN EZEKONKORTASUNA

Aurreko errealitateekin lotuta, mahaietan parte hartzen duten askok azaldu dute baliabide ekonomiko urriak izateak baldintzatu egiten duela beren bizi-proiektua, eta, are gehiago, beren bizitzan egin dezaketen aurrerapen oro. Haien lan-baldintzak ezegonkorrak eta behin-behinekoak dira, eta, ondorioz, ziurgabetasun handia sortzen zaie etorkizunera begira; hala, askoz ere zailagoa da erabakiak hartzea. Zaila da etorkizunerako planak egitea, hala nola, emantzipatzea edo familia bat osatzea, diru-sarrerak urriak badira, eta, gainera, etenak.

Ondorioz, honelako egoerak sortzen dira:

- Berandu emantzipatzea, edo berriro familiaren etxera itzuli beharra.
- Lehen haurra adinez nagusiago direnean eduki beharra, eta, ondorioz, bigarren bat edukitzeko probabilitate gutxiago edukitzea.
- Erabaki okerrak hartzeko beldurra.
- Etorkizunerako segurtasun eza eta kolokan egotea.



# DESORIENTAZIO-SENTIPENA

Desorientazio-sentipena ere gai garrantzitsua izan da mahaietan. Hainbatek aipatu du zer-nolako erronka sortzen zaien ikasketak amaitu eta lan-merkatuari aurre egiteko unea iristen denean. Sentipen hori trebakuntzaren alorrean zein lanekoan gertatzen da.

- Trebakuntzari dagokionez: adierazi dute titulazioei buruz informazio gutxi dagoela, eta, askotan, ez dela batere argi gelditzen zer-nolako trebetasunak eta gaitasunak emango dizkieten etorkizunerako, edo gaitasun horiek merkatuak eskatzen duenarekin bat etorriko diren. Gainera, behin eta berriz esan dute titulazioen eta laneko irteeren edo lan-txertakuntzako tasen artean dagoen erlazioa ezagutzeko informazioa falta dela.
- Lanari dagokionez: besteren kontura lan egiten dutenek zein ekintzaileek, biek, desorientazio-sentipen larria dute.
  - Besteren kontura lan egiten dutenen kasuan, bi alderdi aipatzen dira zehazki: ikasi zutenaren eta lanpostuan betetzen duten eginkizunaren arteko distantzia, eta laneko kontuekin lotutako gaiak (kontratuak, nominak, enplegu-bilatze aktiboa, laneko eskubideak...) ez ezagutzea.
  - Ekintzaileen kasuan, eta batez ere ekintzailetzaren lehen faseetan, laguntza edo aholkularitza falta aipatzen da (gizarte segurantzako alta, fakturazioa, legezko formak, enpresa eta autoenpleguaren arteko desberdintasunak...), beharrezko informazioa sakabanatuta egotea, erakundeen arteko koordinazio urria eta finantzaketa-falta.

# DESBERDINTASUNA ETA KALTEBERATASUNA

Parte-hartzaileek badakite lan-merkatuko ondorio larrienak nozitzen dituzten kolektiboen barruan daudela, eta, gainera, oso kezkatuta daude genero-desberdintasunarekin eta aniztasun funtzionalarekin.

- Genero-desberdintasuna: soldaten berdintasun eza, goi mailako karguetara iristeko zailtasunak, promozio urria, sektore feminizatuetan –hirugarren sektorean, esaterako– gelditu beharra eta, batez ere, uztartzearekin lotutako arazo guztiak.
- Aniztasun funtzionala: aniztasun funtzionaleko pertsonen kasuan, aipatutako zailtasunak oso hedatuta daude, eta ohikoak dira beren lan-harremanetan.



KEZKAK

---

ZEIN KEZKA  
EZKUTATZEN DIRA  
ERREALITATE  
HORIEN ATZEAN?

# KEZKAK

Bigarren fase batean, eta aurreko fasean partekatutako errealitateen arabera, gazteen kezka nagusiak zein diren aztertuko dute taldeek, enpleguaren eta ekintzailtzaren alorrean. Lan horretatik, kezken mapa bat atera da, eta kezka horiek adostu ondoren, lau kezka multzo zabal eratu dira:

Ekintzailtza

Trebakuntza eta laneko sistema

Laneko eskubideak

Desberdintasuna eta kalteberatasuna

# EKINTZAILETZA

Hauexek dira ekintzailetzaren alorrean sortzen diren kezka nagusiak:

- Behar den informazioa ez edukitzea edo informazioa sakabanatuta egotea, informazioa emateko espazio desberdinetan.
- Lehen urteetan irauteko arazoak.
- Gizarte segurantzari ordaindu beharreko kuotak.
- Kudeaketa-lanak.
- Behin-behinekotasuna eta autoesplotazioa.
- Ekintzaile izatera animatzeko pizgarririk ez egotea.
- Ekintzaileen sarerik ez egotea.

# TREBAKUNTZA ETA LANEKO SISTEMA

Hauexek dira trebakuntzako eta laneko sistemaren inguruan agertu diren kezka nagusiak:

- Matrikulatu aurretik, karrera bakoitzaren lan-irteerak ezagutzeko informaziorik ez egotea.
- Ikasten denaren eta lan-merkatuak eskatzen duenaren arteko lotura eza.
- Gai teknikoetan trebakuntzarik ez izatea: trebakuntza teorikoa bai, baina ez aplikatua.
- Oinarrizko lan kontuetan trebaturik ez egotea: lan-kontratuak, nominak, gizarte segurantzza, laneko eskubideak...
- Laneko mugikortasun urria.

# LANEKO ESKUBIDEAK

Hauexek dira laneko eskubideen alorrean sortzen diren kezka nagusiak:


- Laneko ezegonkortasuna eta behin-behinekotasuna.
- Langabezia.
- Kontratu mota jakin batzuk betiko luzatzea: bekak, praktikak, autonomo faltsuak, behin-behineko kontratuak eta partzialak, norberarekin bat ez datorren lana, beheragoko kategoriak, ezkutuko ekonomia...

# GENERO-DESBERDINTASUNA ETA GIZARTE- KALTEBERATASUNA

Hauexek dira genero-desberdintasunaren eta gizarte-kalteberatasunaren alorrean sortzen diren kezka nagusiak:

- Trebakuntza jasotzeko oztopoak.
- Lan-merkatura sartzeko oztopoak.
- Laneko bizitza eta bizitza pribatua uztartzeko zailtasunak.
- Generoaren haustura.
- Lan-egitura baztertzaileak.





ERRONKAK

---

ZEIN ERRONKA  
EZKUTATZEN DIRA  
KEZKA HORIEN  
ATZEAN?

# ERRONKAK

Hirugarren fase batean, parte-hartzaileak lau lan-taldeetan banatu ziren, beren interesen arabera. Adostutako sistema bakoitzean, zein erronka nagusi landu beharko liratekeen eztabaidatu dute.

Ekintzailetza

# #1 ERRONKA: EKINTZAIETZA AREAGOTU ETA SENDOTZEA

Gazte ekintzailetzaren inguruko erronka nagusiak gazteengan espiritu ekintzailea areagotzearekin lotuta daude, eta ibilbideko lehen urteetan igaro beharreko zailtasunekin; izan ere, oso enpresa gutxi finkatzen dira.

Trebakuntza eta laneko sistema

## #2 ERRONKA: ATZERAELIKADURAZ BALIATZEN DEN HEZKUNTZA- ETA LAN- EKOSISTEMA SUSTATZEA

Trebakuntzaren etapatik laneko etapara igarotzean, askok ez dute beren tokia aurkitzen, eta, askotan, bi alorren arteko deskonexioagatik gertatzen da: enpresek, ekonomiaren zutabeek, ez diete trebakuntza-zentroei komunikatzen zer nolako gaitasun eta trebetasunak beharko diren etorkizuneko lanpostuetan, eta hezkuntza-zentroek, neurri handi batean berrikuntzaren arduradun direnek, ez diete enpresei adierazten zein aukera eta abantaila ekar dezakeen ikasleek dituzten ezagutza berriak baliatzeak.

Laneko eskubideak

## #3 ERRONKA: BEKA, LANEKO KONTRATURA IGAROTZEKO BITARTEKOA

Bizitzako etapa horretan, arazo larrienak gazteen artean ohikoenak diren kontratazio-motek sortzen dituzte: praktiketako kontratuek eta bekek. Bi modalitateak oso hedatuta daude, eta gazteek lanean nozitzen duten ezegonkortasunaren eta behin-behinekotasunaren jatorri nagusia dira.

Desberdintasuna eta kalteberatasuna

## #4 ERRONKA: BEREZIKI KALTEBERAK DIREN KOLEKTIBOAK ERE KONTUAN HARTUKO DITUEN ENPLEGU ETA ARAUAK IZATEKO AURRERA EGITEA

Genero-desberdintasuna eta kalteberatasuna zeharkako erronkak dira, enpleguaren eta ekintzailetzaren alorrekoak. Behar-beharrezkoa zaigu horien gaineko gogoeta egitea, gizarte bidezko, berdintasunezko eta solidarioago bat nola eraiki jakiteko; gizarteak, gainera, ez du onura ekonomikoan bakarrik oinarrituta egon behar, gizarte-onuran baizik.



# JARDUERA ILDOAK

---

ZEIN JARDUERA-ILDO  
PROPOSATUKO  
DITUGU ERRONKA  
HORIEI AURRE  
EGITEKO?

# JARDUERA-ILDOAK

Azken fasean, identifikatutako erronken inguruan lan egin dugu, gazteen enplegua eta ekintzailtza hobetzen lagunduko duten jarduera-ildoak proposatzeko.



#1 Erronka: ekintzailletza areagotu eta sendotzea

# JARDUERA ILDOAK:

## 1. Finantzaketa lortzea

- A. Kapital pribaturako zerga alorreko neurriak hartzea, enpresa pribatu gazteetan inbertitu dadin sustatzeko.
- B. *Software* bat sortzea, *start-up* baten arriskua neurtu ahal izateko zenbait parametroren arabera: sektorea, sustatzailea, negozio-eredua...
- C. Administrazioako zenbait entitatek aldez aurretik hautatutako proiektu-poltsa bat sortzea, eta herritarren aldetik inbertsioa sustatzea (inbertsio txikiak, zerga alorreko onurekin) Interesgarria litzateke banketxeei eta banku-entitateei laguntza eskatzea, horren berri emateko.

## 2. Harremanak - *networkinga*

- A. Inkubagailuak profesionalizatzea, harreman-sarea eta *mentoringa* eskaini dezaten.
- B. Finkatze-fasean diren ekintzaileen jaurtigailuak sortzea.

#2 Erronka: atzeraelikaduraz baliatzen den hezkuntza- eta lan-ekosistema bat sustatzea

## JARDUERA ILDOAK:

1. Hainbat mailatako elkarrizketa-mahaia sortzea: erakunde publikoak, enpresak, hirugarren sektorea, GKEak, langileen ordezkariak, gazteak, hezkuntza-zentroak, familiak... alde guztien beharrak bateratuko dituenak.
2. Enpresen eta trebakuntza-zentroyen arteko harremana sustatzea, elkar elika dezaten, eta behar partekatuetan oinarrituta, gauzak eraiki ditzaten.
3. Hezkuntza-ereduaren barruan laneko eskubide eta betebeharren gaineko trebakuntza sartzea.
4. Hezkuntza-ereduan gaitasun eta trebetasunetan oinarritutako dinamika eta ikasgaiak sartzea.
5. Enpresek gaitasunen alorreko aldaketak bereganatu ditzaten lan egitea.
6. *Win-wina* indartzea, gizarte erantzukizuna, onura sozialetan oinarritutako kudeaketa-ereduak, eta abar.

#3 Erronka: beka, laneko kontratura igarotzeko bitartekoa

## JARDUERA ILDOAK:

1. Beken inguruko legeria berrikustea, eta enpresek halako kontratuak amaierarik gabe luza ditzaten eragozteak.
2. Martxan dauden beken jarraipena egiteko tresnak sortzea, eta bekadunei beren eskubide eta betebeharrak zein diren jakitera ematea, beka horiek gardenagoak izan daitezzen.
3. Ekonomia soziala sustatzea.
4. Gazteriaren ekimena bultzatzea.
5. LTO ikasgaia (Laneko Trebakuntza eta Orientazioa) trebakuntza maila desberdinetara hedatu eta indartzea).

#4 Erronka: bereziki kalteberak diren kolektiboak ere kontuan hartuko dituen enplegu eta arauak izateko aurrera egitea

## JARDUERA ILDOAK:

1. Gazteen Berme Sistema berrikusi eta haren gaineko informazioa ematea, eta Autonomia Erkidegoei hura kudeatzeko eskumenak ematea.
2. Gazteentzako egokiak diren informazio-kanpainak abian jartzea.
3. Lan-txertakuntzako adierazleak eta gizarte-klausula inklusiboak sar daitezen lan egitea.
4. Alor horietan martxan jarri diren jardunbide egokiak hauteman, ikusgai jarri eta geurera ekartzea.
5. Aniztasunean oinarrituta dauden enplegu-zerbitzu publikoak sendotzea.
6. Ikaskuntza kolektiboa eta ekonomia sozialaren inguruko ikaskuntza bultzatu eta sustatzea.



ONDORIOAK

---

ZER ATERA DUGU  
MINTEGI  
HONETATIK?

Esandakoaz gain, aipatzekoa da GAZTETALK BILBAO EUROPA lanerako gune kolaboratibo benetan lagungarri eta interesgarria izan dela parte-hartzaile guztientzat, eta proiektuaren baitan, gainera, oso lan-ildo garrantzitsuak ateratzeko balio izan duela; litekeena da ildo horiek enpleguaren eta ekintzaitzaren alorrean gazteria-politikak garatu beharreko agendan txertatzea. Horrek Europar Batasunak proposatutako Elkarrizketa Egituratuaren helburua betetzen lagunduko luke, eta gazteen hiritartasun aktiboa ere sustatuko luke.

Azkenik, GAZTETALK gogoetarako gunea izan da, hainbat eragile batu dituen. Gazteek enplegu, ekintzaitza eta gazteriaren alorreko eragileekin eta erabakiak hartu behar dituzten politikariekin buruz buru lan egin eta parte hartu dute, modu kooperatibo eta horizontalean. Hala, eraikuntza-prozesu kolektibo bat sortu da, eta, gainera, etorkizunerako erronken eta lan-ildoen mapa eratu da, tokian tokiko eta Europako agenda publikoetarako baliagarri izango dena (Erasmus Programako KA3 ekintzen helburua).